

# HILONDOKO FRAKAK

Ezkerretik eskuinera:  
Fernando Neira,  
Karlos Aranzegi,  
Joserra Senperena  
eta Joseba Irazoki,  
atzean Rafa Berrioren  
erretratua dutela.

JOSERRA SENPERENA

IO SIMULACR



Urtebete pasa dagoeneko Rafael Berrio hil zela, eta haren omenez ekitaldi ugari antolatu dira Donostian udaberri honetan. Bi programaziotan banatu dira: alde batetik, hiriko hainbat taberna, jatetxe, arte-galeria eta liburu-denden (musikariaren berezko habitatak) artean antolatutako *El hijo ingobernable de la luz del sol* (Eguzkiaren argiaren seme gobernaezina), kontzertu berezi, entzunaldi eta erakusketekin; eta bestetik, Donostia Kulturak Ernest Lluch kultur gunean eta Victoria Eugenia antolatutako erakusketa, mahai-inguru, kontzertu eta proiektioak izan ditugu, *Yo ya me entiendo* (Nik ulertzen dut nire burua) izenburupean. Bi programen azken kontzertuetan egon ginen; biak aski ezberdinak, baina biak eder.

## BEÑAT SARASOLA

**M**aiatzaren 9an *Deriva* eta *Niños Futuros* igo ziren oholtzara tenpluan, LeBukowski tabernan (Iñaki Peman-en argazki ederrez inguratutik). 30 lagun eskasentzat lekua baino ez, eta, sarrerak airean saldu zirenez, bi txanda egin zituzten. Inondik ere, bakarlariaren musika ibilaldiaren zati handi batean hogeita hamar laguneko publikoa izatea arrakastatzat joko zen. Gogoan dut, *tipuletaki*, Complot tabernan jo zuen kontzertu bat; dozena bat izango ginen, eserita, eta haren arreba etorri zitzaigun, harriturik, zer egiten genuen han galdezka; gu, artean gazte eta areago berde, eta euskaraz mintzo. Baina, jakina denez, heriotzak bizitza edertzen du, eta omenaldi hauetan behin baino gehiagotan gertatu da kontzertuak bikoiztu beharra eta, halere, sarrerak agortzea. Bistan da, ez zion alferrik jarri bere disko bati *Paradoja* izenburua.

Zer ordutan eta 16:30etan joan ginen, bada, Berrio omentzen zuen kontzertu batera, eta ezin ekidin tipoa imajinatzea, dagoen lekuan dagoela, irribarre sardoniko bat ezpainetan. Derivaren *Harresilanda* diskoan hasi nintzen haren ibilbidea jarraitzen (Gaztelupeko Hotsak-ek banatu zuen) eta bereziki nahi nituen garai prerrafaelitako (Rafa Berrio zenekoa, alegia) abesti haiek eguneratuak entzun. Talde hartako kideak, Alberto Bosch, Borja Iglesias eta Jon Intxausti, izan ziren, Mariano Hurtado (teklatua) eta Usoa Uriberen (ahotsa) laguntzarekin, oholtzara igo ziren lehenengoak. *Harresilanda* abiatzen duen *La piel a tiras* (Azala tiratan) abestiarekin hasi eta disko horretako eta aurreko *Planes de fuga* (Ihesaldi planak) diskoko abestiak tarte-

katu zituzten. Elkarrekiko disko aski ezberdinak dira produkzio aldetik; lehenak gaizki samar zahartu den kutsu elektronikoa du, bigarrenak pop sotilagorantz jotzen du, eta kasu honetan taldeak abestiei kutsu *loureedarra* eman zieten (kantariaren erreferentzia nagusietarik zen Lou Reed, nagusia ez bazen), nahiz eta *Bronca* (Liskarra) bezalako kantu pausatua goetarako tarterik ere egon zen. Ez alferrik, *Femme Fatale* abestiaren bertsio batekin amaitu zuten beren boloa.

*Niños Futuros* izena hartu zuten okasiorako Los Bracco-ko Pablo Fernandezek (ahotsa) eta Toni Medinak (gitarra), Andoni Etxebestek (bateria), Ikerne Giménez-ek (baxua) eta Grande Days-ko Rumano Powerrek (teklatuak eta gitarra) osatutako taldeak. Berriok azken urteetan zuzenekoetan berreskuratu zituen Derivaren zenbait kantu jo ondoren –tarteetan *Perfecto en soledad* (Bakardadean bikain) abesti misantropo borobila-, batez ere *Paradoja* diskoan zentratu ziren, eta Los Braccok berezkoa duen rock & rollerantz eraman zituzten kantuek, *Mis ayer muertos* (Nire atzo hilak) kantuekin goia joz.

Beste paradoxa baterako tarterik ere egon zen, baina. Egokiera horretan zaila baitzen duela bost urteko apirilaren 23ko gau harekin ez akordatzea: Berriok Bukowskin jo zuen (frakik jantzi gabe, noski), eta kontzertu gogoangarri harengatik tabernak isuna jaso zuen, baimendutako edukiera baino jende gehiago omen ginelako barruan. 2016 kulturazko urte hura zen, eta hortik aurrera, aurreko urte jorrietan ez bezala, tabernetan kontzertuak antolatzeke erraztasunak joanak ziren. Ez zegoen jada zer kapitalizatu.

Victoria Eugenia maiatzaren 19an (eta 20an) emandako kontzertua oso bestelakoa izan zen: profesionalagoa, bitarteko gehiagorekin, preziosoagoa. Paradoxek ordea, hor jarraitzen zuten. Berriok ez zuen sekula bakarlari gisa Victoria Eugenia jotzerik izan. UHF taldearekin Principal aretoan jo zuen 80etan, eta bakarkako bere azkena ere han izan zen, 2019ko urrian. Victoria Eugenia estreinatu zuten *Adios a la bohemia* (Bohemiari agur), Berriok Joserra Senperenarekin moldatutako Pablo Sorozabal eta Pio Barojaren opera. Baina bizirik zela ez zuen heriotzak eman zion aukerarik izan.

Musikalki Senperenak gidatutako kontzertua izan zen omenaldikoa, eta oroz gain, haren lana da nabarmendu behar dena. Ez da lan batere erraza hainbeste musikarik (eta elkarrekiko hain ezberdinak) parte hartutako kontzertu bat nahas-mahasean ez erortzea, eta kartelari erreparatuta (Rafa Rueda, Charly & Pavlyuchenko, Amateur, Virginia Pina, La Oreja de Van Gogh, Petti, Paul San Martin, Sanchís y Jocano, Mursego (20an bakarrik), Abraham Boba, Julia Cristina, Txetxo Bengoetxea, Miren Iza, Mikel Erentxun eta Diego Vasallo), arrisku hori zen burura etortzen zitzaizun lehenengo gauza. Haatik, ez zen halakorik gertatu. Eta hori posible izan zen, funtsean, Senperenak (pianoa eta organoa), Joseba Irazokik (gitarra eta ahotsa), Karlos Aranzegik (bateria) eta Lutxo Neirak (baxua eta kontrabaxua) osatutako taldeak egindako lanagatik. Abesti gehienetan beraiek izan ziren banda, eta musikarien antzeak eta abestien moldaketa bikain eta koherenteak kalitatea omenaldiaren maila berean egotea eragin zuten. Hain justu, parada ezin hobea izan zen ikus-teko *mainstream* arekiko alde ez dela ausazkoa, ez diskurtsiboa: La Oreja de Van Goghek *Las tornas cambian* (Egoera aldatzen da) bertsionatu zuten, eta beren erregistroan ondo aritu baziren ere, besteekiko alde nabarmena suertatu zen, hala moldaketetan nola ekuzazioan.

Gauza on asko egon ziren eta ezin denak nabarmendu, baina bereziki gustatu zitzaizkidan Amateur-ekin jotako *El principio de una buena racha* (Bolada onaren hasiera) dylandarraren eta Diego Vasalloekin egindako *No pienso bajar más al centro* (Ez naiz gehiago hirigunera jaitsiko) aski eraldatuaren moldaketak.

Hirigunerako azkeneko txangoa izan zen, bai, zer eta Victoria Eugeniara, gainera. Tira, orain badakizu, frakak ere ondo ematen dizu, amigo. ●